

EUDELeKO ARABAKO LURRALDE BATZORDEA

ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETARAKO LURRALDE KONTSEILUAREN (ATAFLK) FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO AGERRALDIAREN 1. ZATIA ARABAKO BATZAR NAGUSIETAN

EGUNA: Astelehena, 2014ko martxoaren 31

AGERRALDIAREN ESKEMA

- 1- ESKER ONA
- 2- AGERRALDIAREN HELBURUA
 - 2.1- ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETARAKO LURRALDE KONTSEILUAREN (ATAFLK) EGINKIZUNAK
 - 2.2- ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETARAKO LURRALDE KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUKO GABEZIEN ADIBIDEAK
- 3- ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETARAKO LURRALDE KONTSEILUAREN (ATAFLK) BALIOESPENA

1.- ESKER ONA

Lehenengo eta behin, agerraldi honetan, eskerrak eman nahi dizkiet Batzar Nagusiei, EUDELeK egindako agerraldi-eskaerari arretaz eta azkar erantzuteagatik.

Alde horretatik, toki-agintaldi honetan EUDELeK Arabako Toki Administrazio eta Finantzatarako Lurralde Kontseilurako izendatutako ordezkari hautetsia naizenez, guztiok ahalegin handia egin behar dugula uste dut, Kontseilu honen funtzionamendua behar den modukoa izan dadin. Hartara, jardun desegokiak ez ditu haren ahalmenak inondik inora hutsalduko.

Jarauntsi eta etorkizunari begira babestu nahi ditugun instituzioek merezitako errespetuari dagokionez, jokabide pertsonalek edo ohitura txarrek erakundearen irudia zer egoeratan zapuzten duten azaldu beharra dago. Arrisku hori ez dago politikaren ikuspegitik inolaz ere onartzerik. Beraz, lehenengo eta behin, niretzat oso pozgarria da Batzar Nagusiak nire sentsibilitate eta kezkarekin ados egotea, autogobernurako ahalmenen bidez ezarri ditugun instituzioei eta mekanismoei zor diegun errespetuaz hitz egiten dudanean.

2.- AGERRALDIAREN HELBURUA

Agerraldiaren helburua konstruktiboa da. Asmo horretarako, hain zuzen ere, zenbait jarduera desegoki salatu behar dira, Arabako Toki Administrazio eta Finantzatarako Lurralde Kontseiluari balioa kentzen diotelako.

Hori dela eta, Arabako Toki Administrazio eta Finantzatarako Lurralde Kontseiluaren eginkizunei buruzko hausnarketa orokorra egin beharra dago. Izan ere, oso gogoan izan behar da Arabako Foru Aldundiaren eta toki-erakundeen arteko beharrezko kontzertazioari begira sortu zela eta gaur egun ere bere horretan dirauela. Hala ere, maila instituzionalen arteko topaketarako eta adostasunerako organoa izan beharko bazen ere, edukirik ez duen tresna formal hutsa da gaur egun, eta bete beharreko izapide hutsa baino ez da Foru Aldundiaren ordezkarietzat. Kontseiluaren eginkizunak nola tratatzen diren kontuan hartuta, ez da batere eraginkorra, eta lurraldeko toki-erakundeentzat oso zaila da Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren kasuan kasuko bileren ondoren banan-banan jaso beharko luketen informazioa lortzea.

Egoera hori, gainera, are larriagoa da, Arabako Toki Administrazio eta Finantzatarako Lurralde Kontseiluko bileretan toki-interesaren defentsarako izendatutako hautetsi guztiei nolako tratua ematen zaien kontuan hartuta. Beraz, egoera jasanezina izan zen erabat, Arabako Toki Administrazio eta Finantzatarako Lurralde Kontseiluak martxoaren 3an egindako azken bileran.

Geure erantzukizun kolektibotik, Batzar Nagusiei proposatu nahi diegu oso egokia izango litzatekeela zenbait mekanismo bilatzea, irregulartasunak gainditzeko eta Arabako Toki Administrazio eta Finantzatarako Lurralde Kontseiluaren eginkizunak behar bezala betetzeko. Izan ere, bilerak ez dira batere emankorrak, eta, horrez gain, gehienetan, toki-alderdiak izendatutako kideek ez dute behar besteko solasik eta informaziorik aurkitzen, euren izendapenaren helburu den kudeaketa politikoa garatzeko.

2.1.- ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETARAKO LURRALDE KONTSEILUAREN (ATAFLK) EGINKIZUNAK

ATAFLK Arabako administrazio publikoak koordinatzeko sortu zen, itunpeko ezarpenean eta Arabako toki-erakundeetako lurralde-eremuan eragina duten arlokako politika publikoetarako kontu materialetan eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ekonomia, finantza eta aurrekontu arloko funtsezko eginkizunak ditu lurralde osoan, lotura handia dauka toki-interesekin eta, batez ere, toki-erakundeek itunpeko zergetan duten partaidetzarekin lotutako eginkizunak nabarmendu behar dira (FOFFEL eta Obra eta Zerbitzuen Foru Plana).

Hain zuzen ere, ATAFLK-k jorratzen dituen gaiak oso garrantzitsuak dira Arabako toki-erakundeen kudeaketan, eta are garrantzi handiagoa dute ekonomia eta aurrekontu arloko indarreko arrazionalizazioaren eta iraunkortasunaren testuinguruan.

2.2.- ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETARAKO LURRALDE KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUKO GABEZIEN ADIBIDEAK

- a) **Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren deskargua geldoa da.** ATAFKren bitartez Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren deskargua oso berandu egiten denez, ondorio kaltegarriak sortzen dira udaletako aurrekontuak kudeatzeko orduan. ATAFK-k gai hori jorrazteko egindako deialdiak berehala gauzatu beharko lirатеke, eta monografikoak izan beharko lirатеke, estrategia partekatutako diseinatze eta lurraldeko erabaki ekonomikoak lantzeko.
- b) **Datu ekonomiko zehatzei buruzko aurretiazko informaziorik eskaintzen ez duten foru-proposamenak egiten dira.** Magnitude ekonomiko nabariak zein diren jakin beharra dago; esate baterako, zerga-bilketaren bilakaeraren aurretiazko likidazioak edo likidazioak, Foru Aldundiei horren berri emandako epeetan. Edozein zeregin eta kudeaketa politiko egin baino lehen, informazioa eduki behar da. Horrela, bada, kasuan kasuko erabakiak zergatik hartu diren ulertu ahal izango da, toki-erakundeek euren proposamenak egin ahal izango dituzte eta proposatutako gaietarako beharrezkoa den adostasuna bilatu ahal izango da.
- c) **Funtzionamenduari buruzko arauak ez dira aldebakartasunez interpretatu behar,** udal-ordezkariei ez zaielako euren iritzia adierazteko aukerarik ematen.
- d) **ATAFK organo irekia izan behar da, eta erakundeen arteko eztabaida dinamikoa suspertu behar du.** Alde horretatik, lehenengo eta behin, tokian tokiko arazo ekonomiko eta finantzarioak jorrazteko egoitza izan behar da. ATAFK-k onartu egin behar du gai berriak proposatu behar direla eta guzti-guztiak zehaztasun zein arreta handiagoaz aztertu behar direla. Lehendabizi, tokian tokiko kezka direlako; eta, bigarrenez, toki-gobernuetako zilegizko ordezkariak proposatzen dituztelako, alkateek, alegia.

3- ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETARAKO LURRALDE KONTSEILUAREN (ATAFK) BALIOESPENA

Berataratzen diren guztiek ATAFKren bilerek eskainitako aukerak balioetsi behar dituzte, halakorik ez balego, sortzeko eskatu beharko genukeelako une honetan. Bete-betean lan egin beharko dugu, honako hauxe lortzeko:

- Kontseiluaren bileren dinamika baliotsua izatea, udaletako aurrekontuen kudeaketarako informazioa eskaintzen dutelako eta ordezkariak duten agintariak bertan parte hartzen dutelako.
- Bileren garapenaren bidez, ustezko zenbait interpretazio daudenean adostu beharreko gaietan jarrerak hurbiltzea.

- Kontseilua bera foro egokia izatea, faktore ekonomiko eta finantzarioen benetako kudeaketa politikoa garatzeko eta horretarako mekanismoak egituratzeko.

Azken batean, ATAFKren bilerek izapide administratiboaren betearazpen eskusiboa gaintu behar dute, eta beharrezko kudeaketa nahiz argudio politikorako forora hurbildu behar dira, Arabako Lurralderako ustezko erabaki ekonomiko onenak lortzeko.